


**VILLA ASHUN  
D MAILA**

**ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA, 64**



**Egile eta data ezezagunak  
Ez dago espedienterik Udal Artxiboan.**

**Deskribapena.**

Ashun txaleta, jatorriz Altxako udalerrian kokatua. Lursailak Ategorrieta etorbidearekin du muga iparraldean, eta Intxaurre kalearekin hegoaldean. Plataforma baten bidez ebazitako malda handi bat da, eta eraikina plataformaren gainean dago. Eraikina iparraldera lerrokatuta dago eta lursailaren azalera handiena hegoaldean geratzen da. Oinplano angeluzuzena eta erdisotoko oina, bi oin eta estalkipea ditu. Bi isurki handi ditu eta piñoia, iparraldera eta hegoaldera. Fatxada batez ere harlanduzko zatiez entokatuta dago, arkitektura tradizionaleko elementuak konbinatzen ditu eta hogeiko urteetako hamarkadako korrante neoeuskaldunaren barruan sartutako irudia du.

**Babes erregimena.**

1. Erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berriazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: ez.
  - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
  - C. Esku hartzeko irizpide zehatzak: jasodurarik ez da onartzen.